

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


ELIKAGAIAK

2018ko LEHENENGO LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa
Jakinarazpenen jatorria
Kutsadura iturrien sailkapena
Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak
Etiketetan adierazi gabeko alergenak


JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2018ko lehenengo lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 1036 jakinarazpen izan dira. Horietatik 304 alertak izan dira (%29,5), 267 informazio-jakinazpenak (%25,5) eta 465 mugan egin diren ukapenak (%45).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **35,5a Turkiakoak** dira eta jarraian **Txina** dugu: kasuen % **18,5a**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **Frantzia** izan da, % **21**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Egiptok**, jakinarazpenen %**29** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **EEBB** %**31a** eta **Brasil** %**30,5**arekin dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2018ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1036 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturriak	%
Kutsadura biologikoa	%28,5
Mikotoxinak/biotoxinak	%24
Iruzurrak	%15
Hondakinak	%11,5
Kutsadura kimikoa	%9,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	%4,5
Kutsadura fisikoa	%4
Metal astunak	%3



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **82**an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % **38,5a** eragin du. Kasu gehienetan (% **34a**) kakahuetea **Hegoameriketarik** zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **salmonelek** kutsaduren %**59a** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **87**an. **Oilaskoa** izan da produktu protagonista %**43,5**eko kasuetan, %**70,5**eko kasuetan **Brasil** jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, % **7a** **Salmonella enteritidis** dagokio (oilaskoak eragin ditu kasuen % 84,5a eta %64ko kasuetan Polonia izan da jatorria) eta %**6a** **Salmonella typhimuriumi**, kasu honetan ere oilaskoa protagonista delarik (%70a) eta europarrak (%100).

Hondakinei dagokionez, **pestizidak** %**84a** dira eta medikamentuak %16a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatutak daude kasuen %**42**an eta gehienak (%**65a**) **asiarrak** dira.

Metal astunei buruz esan behar da **merkuriok** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **50a**. **Ezpatarraina** protagonista izan da %**67**eko kasuetan eta jatorria Asia %65an.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	ZK(%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK(%)	JATORRIA	ZK(%)
Mikotoxinak/Biotoxinak	250	Aflatoxinak	205 (82%)	kakahueteak	77 (38,5 %)	Hegoamerika	26 (34%)
Kutsadura biologikoa	295	Salmonella sp.	174 (59%)				
		<i>Salmonella sp.</i>	151 (87%)	oilaskoa	63 (43,5%)	Brasil	44 (70,5%)
		<i>S.enteritidis</i>	13 (7%)	oilaskoa	11 (84,5%)	Polonia	7 (64%)
		<i>S.typhimurium</i>	10 (6%)	oilaskoa	7 (70%)	Europa	7 (100%)
		Norobirusa	40 (13,5%)	ostrak	34 (85%)	Frantzia	34 (100%)
Metal astunak	30	Merkurioa	15 (50%)	ezpatarraina	10 (67%)	Asia	4 (40%)
Hondakinak	121	Pestizidak	102 (84%)	barazkiak	43 (42%)	Asia	28 (65%)
		Botikak	19 (16%)	ez da produkturik nabarmentzen			

ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOAK

Jakinarazitako iruzurren kasu guztietatik %41,5a, 63 kasu, etiketan alergenok ez dituztelako adierazi izan dira.

ELIKAGAIK	Nº (%)	JATORRIA	Nº (%)
Plater prestatuak	9 (14,5%)	Europa	7 (78%)
Konfitegintza, gozogintza eta pastelgintza produktuak	19 (30%)	Europa	15 (79%)
Esnea eta eratorriak	5 (8%)	Europa	5 (100%)
Gosegarria (patata frijituak, gaileta gazituak,...)	10 (16%)	Europa	6 (60%)
Bestelako elikagaiak	20 (32%)	Europa	10 (50%)